

Ebazpena: R061/2023

Espedientea: 22/2019 eta 23/2019 metatua

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 1a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honako hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Bada, honako hau erabaki dute:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA) gatazka planteatu du batzorde honetan, ez dagoelako ados Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak (aurrerantzean, OFPM) emandako irizpide batekin, MESSLU enpresak eragiketen kokapenari buruz formulatutako kontsultari dagokionez. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 22/2019 eta 23/2019 espediente-zenbakiekin.

I. AURREKARIAK

1.- MESSLU sozietateak Madrilen du zerga-egoitza, eta handizka merkaturatzen ditu erregaiak (kerosenoa eta A gasolioa), eraldatu gabe.

2017ko abenduaren 31ra arte, Estatuan bakarrik ordaintzen zituen zergak. 2017ko eragiketa-bolumenean 10.000.000 euroak gainditu zituenez, 2018an eragiketa-bolumenarekin proportzioan ordaindu behar zituen zergak.

2.- 2018ko uztailaren 2ko idazkiaren bidez, MESSLUk zergei buruzko kontsulta bat egin zion BFari, eragiketen kokapenaren ingurukoa, honako premisa hauetan oinarrituta:

a.- Garraioa hasten denean (ulertu denez, bezeroengana iristeko), erregaia Bilbon egoten da batzuetan, baina beste batzuetan Bartzelonan edo beste toki batzuetan.

b.- Bilborainoko garraioa. Erregaia Bartzelonan deskargatzen denean, MESSLUk behar duen kopurua kalkulatu du, bezeroekin dituen kontratuen arabera, eta dagokiona garraiatzen du Bilboraino, CLHrekin duen garraio-kontratua erabilia.

c.- Bilbon biltegiatutakoan, erregaia bezeroari (aire lineari) ematen dio, hark behar ahala.

3.- Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren (aurrerantzean, EZKO) erantzun-proposamenaren arabera, Bizkaiko tangara lotutako salmentak foru-lurraldean kokatu behar dira, honako arrazoi hauengatik:

a.- Ekonomia Itunaren 28. artikulua esaten du, ondasun higigarrien salmenten kokalekua zehazteko, baldin eta ondasunak ematen dituenak ondasunok eraldatu ez baditu, bezeroarengana nondik iritsi diren hartuko dela kontuan.

Ondasunak bezeroarengana iritsi daitezten garraiatu egin behar badira, garraioa hasi den tokian kokatzen dira salmentak.

b.- Auzitegi Gorenak arau horiek interpretatu zituen 2011ko apirilaren 13ko Epaian (ROVER epaia).

BFaren ustez, epai horrek hiru irizpide ezartzen ditu:

1.- Eraldatu gabeko ondasun-emateak kokatzeko orduan, kontuan hartu behar da bezeroari *nondik* jarri dizkioten ondasunok eskura, eta ez *non*.

2.- Merkaturatzaileek jarduera gauzatzeko erabiltzen duten *tokitik* jartzen dute ondasuna bezeroaren eskura, eta araua ez da aldatuko ondasunak *ezustean edo noizean behin* beste toki batean badaude eta toki horretan ekoizpen-prozesuari baliorik gaineratzen ez bazaio.

3.- Garraioari buruzko araua ez da aplikatuko, baldin eta ondasunak jarduera garatzeko erabiltzen den tokiaz bestelako leku batean badaude eta leku horretan ekoizpen-prozesuari baliorik gaineratzen ez bazaio; araua aplikatu egingo da, ordea, merkaturatzaileak jarduera modu egonkor eta etengabe egiteko erabiltzen duen toki batean hasten bada garraioa (instalazio propioak nahiz besterenak izan) eta ekoizpen-prozesuari balioa gaineratzen bazaio.

Gero, 2016ko otsailaren 9ko epaiak, 2016ko abenduaren 13ko epaiak eta 2017ko urtarrilaren 31ko epaiak epai hori zehaztu edo garatu zuten. Guztiak ziren petrolio-produktuei buruzkoak, eta ondorioztatu zuten erregaiak eman aurretik non dauden, hantxe kokatu behar direla ondasun-emateak.

c.- Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen 2017ko ekainaren 21eko eta 2017ko azaroaren 15eko ebazpenen arabera, era berean, ondasun-emateak kokatzeko, kontuan hartu behar da ondasunok non dauden bezeroen esku uzteko unean (hots, gordailu fiskalak).

Horretan oinarrituta, uste du Bizkaira garraiatutako produktua MESSLUren esku dagoela eta hark, gero, bezeroen esku jartzen duela, haiek behar ahala.

2019ko otsailaren 7ko idazkiaren bidez, EZKOk bere proposamenaren berri eman zion OFPMri.

4.- 2019ko apirilaren 5ean, OFPMk adierazi zuen ez zuela EZKOn proposamena onartuko, eta gogoeta hauek egin zituen:

a.- Ez da aintzat hartu behar garraioa non hasten den, baldin eta toki horretan egiten diren jarduerak ekoizpen-prozesuan osagarriak edo garrantzirik gabekoak badira, baliorik gaineratzen ez dutela baieztatu ahal izateraino.

b.- Horretarako, kasu zehatzaren inguruabarrei erreparatu beharko zaie.

c.- Auzitegi Gorenaren 2016ko otsailaren 9ko eta 2017ko urtarrilaren 31ko epaiek egiaztatutzat jo dute gordailu fiskala dagoen tokian gutxieneko azpiegitura bat dagoela, materialei eta langileei dagokienez, banaketalanak egin eta, ondorioz, balioa gaineratzeko. Halaber, ez da egiaztatutzat jo azpiegitura hori nahikoa ez dela.

d.- Kotsultan, ez da informazio nahikorik eman Bizkaian dauzkaten baliabide materialei eta giza baliabideei buruz, baloratu ahal izan dezagun baliabideok nahikoak ote diren ulertzeko MESSLUren esku jartzen direla, gero hark bezeroen esku jar ditzan. Hortaz, gordailu fiskalean kokatzen da entrega; bereziki, erregaia bertan ez dagoen kasuetan.

5.- Bestalde, BFAk, «egiaztapen-prozedura mugatua» izapidetu aurretik, zeinaren bidez bakar-bakarrik egiaztatu baitzen zerga-ordainketa eragiketa-

bolumenarekin proportzioan egin al zen 2017ko BEZean, 2017ko eragiketa-bolumena egiazta zezala eskatu zion ZAEARI.

6.- Bi hilabete igaro zirenez Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordean kontsultari erantzuteko erabakirik hartu gabe, 22/2019 eta 23/2019 gatazkak planteatu ziren.

7.- 2021eko azaroaren 26an, Arbitraje Batzordeak bi gatazkak metatzea erabaki zuen.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak eskumena du gatazka ebazteko, Ekonomia Itunaren 64.b) artikulua haxe ezartzen baitu Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen eginkizunei dagokienez:

«b) Ekonomia-itun honetan aipatutako lotuneen aplikazioari buruz egiten zaizkion kontsultei erantzutea. Kontsultaren bat jasotzen denean, bi hilabeteko epean hura jaso denetik, kontsulta bera eta beraren ebazpen-proposamena gainerako administrazio interesdunei helaraziko zaizkie, azter ditzaten. Bi hilabetetan inork ez badu oharririk egiten ebazpen-proposamenari buruz, proposamena onetsizat joko da.

Oharririk badago eta horiek onartu ezean, horien gaineko akordioa lortu ahalko dute Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen barruan. Nolanahi ere, aipatutako oharrak egin eta bi hilabetera ez bada akordiorik lortu, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeak, baita

ukitutako beste edozein administraziok ere, hilabete izango du desadostasuna Arbitraje Batzordera helarazteko».

2.- Prozedurak metatzea

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 57. artikulua honako hau xedatzen du:

«Prozedura hasten edo izapidetzen duen administrazio-organoak, prozedura hasteko modua edozein dela ere, erabaki dezake, ofizioz edo alderdi batek eskaturik, prozedura hori metatzea oinarri bera edo lotura estua duten beste batzuekin, organo berak izapidetu eta ebatzi behar badu prozedura.

Metatzeko erabakiaren aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu».

Arbitraje Batzordeak metaketa erabaki du, bi administrazioen aurrean egindako zerga-kontsulta bakar bati erantzuten zaiolako. Kontsulta horri dagokionez, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeak bakarrik zuen ebazteko eskumena.

3.- Arbitraje Batzordearen jarrera

Ez dago benetako alderik MESSLUk egindako kontsultari erantzun substantiboa emateko irizpideetan; hala, honako hau da auzia: kontsulta horrekin emandako datuak ikusita, egiaztatutzat jo daiteke Bizkaian baliabide material eta giza baliabide nahikoak daudela.

Agerikoa denez, horren arabera erantzun ahalko da argi eta garbi EZKOk proposatutako ildoan, edo, bestela, baldintzekin (hainbat irtenbide posiblerekin), OFPMk proposatutako ildoan.

Jakina, kontsultan ez dira aipatzen ez Bizkaiko gordailu fiskalaren izaera (iraunkorra den ala ez) eta gordailu fiskala edukitzeko titulua (propioa edo beste norbaitena den), ez gordailuari atxikitako langileak eta langileok betetzen dituzten eginkizunak; hortaz, modu zalantzagabea nekez baieztatu ahalko dugu ondasunei balioa gaineratzeko gutxieneko jarduerarik egiten ote den ondasunak –behintzat, ondasunen zati bat– bezeroen esku jartzeko unean dauden tokian.

Gainera, Arbitraje Batzordeak oraintxe bertan ebatziko balu 2018ko BEZa ordaintzeari buruzko desadostasuna, ebazpenak ez luke beteko zerga-kontsultaren helburua, zergadunari zerga-betebeharrak betetzeko orduan segurtasun juridikoa ematea baita helburu hori.

Bestalde, ZAEAk, BFAk hala proposatuta, 2017ko eragiketa-bolumena egiaztatu behar duenez, administrazioek ezagutza handiagoz eztabaidatu ahalko dute eragiketak egin ziren tokiari buruz. Halaber, hurrengo ekitaldien harira irekitzen diren akta bakarrekin, desadostasun berbera eratu ahalko da; hortaz, ez da inongo babesgabetasunik sortzen.

Ikuskapen-espediente horietan ere ados jartzen ez badira, Arbitraje Batzordeak, frogabide egokiekin jada, ebatzi ahalko du Bizkaian baliabide material eta giza baliabide nahikorik dagoen, ulertzeko ondasunak lurralde horretatik jartzen direla bezeroen esku.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

1.- Prozedura artxibatutzat jotzea, bestelako izapiderik egin gabe, gerora xedea galdu delako: kontsultak ezin du berezko xedea bete.

2.- Erabaki hau Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari, Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoari eta MESSLUri jakinaraztea.